



BESTEEN LEKUAN JARTZEAREN GARRANTZIA

Arantzazuko Baketik bake zentroan Antzerki-Foruma ari dira lantzen; hiru tolosar ari dira bertan parte hartzen 6-7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-07-05

VIIURTEA 1.746.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Garagardo kupela motorraren aurreko gurgilarekin bultzatu behar zuten pixkanaka proba batean. N. URBIZU

MOTORIZALEEK IKUSMIN HANDIA PIZTU DUTE HERRIAN

IBARRA 300 motorzale inguru elkartu ziren atzo plazan; askotariko motoak eta probak ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek 4



Goian ajoarriero lehiaketako une bat. Behean, atzoko antzerki saioa. A. IMAZ

Antzerkia eta jaiekin giro polita izan da auzoan

TOLOSA Atzo amaitu zen Antzerki Astea, eta gaur amaituko dira jaiak ekitaldi ugariarekin 5

"Eskerrik asko, Vanesa.
Nire bilobaren lehen hitza
entzun ahal izan dut gaur."

Ator, 72 urte. Zarautz



Vanesa, GAESko audioprotesista

GAESen lan egiten dugunok, 60 urte daramatzagu entzumen-arazoak konpontzen, profesionalen talde bikain bati esker. Gure zerbitzu integratua eta azken belaunaldiko teknologiak, lider bilakatu gaituzte entzumen-sektorean.

Informazio-telefonoa: 902 39 39 40

Zatoz eta ospatu gurekin gure Deitu eta eskatu ordus
ENTZUMENA DOAN AZTERTZEKO
eta opari bat emango dizugu.



» **Uzturretik**

Felix Irazustabarrena

Irudizko ez diren irudien inguruko borrokkak nagusi dira gaurko politikan. Euskal telebistako maparena eta presoen argazkien aurkako kruzada adibidez. Eman nahi den irudia indartzea dute hel-

buru, baina ez bakarrik. Errealitatea beste era batetara azaltzeko edo ezkutatzeko intentzioa dute irudi aldaketa horiek.

Eguraldiko mapetan, bestela lortzen ez dugun lurraldetasuna islatzeko engainua sortzen zuen, baina batzuk irudikatu nahi dugun Euskal Herria azaltzen zigun behintzat.

Presoen argazkiak, pintadak, ikurrak... ezabatzeak errealitate bat gordetzen du. Dagoena izkutatzea. Ezikusiarrena egiteak kon-

ponbidetik urruntzen gaitu ordea. Eta badago tartean beste faktore bat ere. Itxurakeria estaltzeaz gain, itxura egiteak harago doaz ahaleginak, sentimenduekin jolastu nahi baitute.

Argazkiak eskubideen aldarrikapena dira, baina baita elkartasun eta maitasun adierazle. Eta ezabatu nahi dizkigute.

Lehenaz, presoen eta senitatekoen eskubideaz, ados, alde jarri dira orain ezabatzeak aginduak betetzera datorren Jaurlaritzaz

(Ertzaintza ari da lana egiten) eta agindua bete arazi nahi dieten hainbat udal (pintada, kartel eta argazkiak ez kentzearen arduradun egin nahi dituzte).

Bigarren hori, «maite zaituztegu» hori, ia delitu bihurtu dute (jirik gabe Hernaniko alkatearen kausan). Baina hain lotuta doa bakoitzaren barne egoerarekin, ez dakidala nola egin daitekeen ihes hortik. Nola epaituko dute gure maitasuna?

Nik maite ditudan asko daude kartzelan eta ez dakit dauden guztiak maite ditudan, baina beraiek maite dituzten gauzak maite ditunik ere. Beraiek maite duten he-

rria, hizkuntza, kultura... horietaz beraiek amesten dutena amesten dut nik ere, eta horrek ez du buelta handirik.

Hori politikoki kokatu behar da hortik aurrera. Erabaki politikoak dira hartu direnak. Eta zentzugabekeria badirudi ere, kutsu politikoak kentze arren hartu dituzte. Politika ukatzera datoz. Garaipena adierazi nahi dute, politikoki ez baizik eta indarrez irabaziko dutela esatera datoz. Minaren, gorrotaren eta mendekuaren bidetik datoz elkartasuna ezabatu nahi duten erabakiak. Baina oraindik 751 arrazoi dauzkagu elkartasuna azaldu eta maitatzeko.

A **Asteko irudia**

Apustuzaleentzat gustuko erronka

TOLOSALDEA • Txindokiko gailurra apustu eta desafio asko egiteko baliatu izan dute askok. Azkena, Abaltzisketako lau herritarrek eginikoa izan da: bat hiruren aurka, nor lehenago iritsi. Mikel Senperena, Jon Zubizarreta eta Iñaki Gorostidik osaturiko hirukotea gailendu zitzaion Xabi Lasari (goian, eskuinean). Duela bost urte Iker Karrera Larraitzetik Txindokira 11

aldiz igo zen 24 ordutan (goian, ezkerrean), eta orain Patxi Caminos (behean, ezkerrean) tolosarra saiaturko da marka hori hobetzen. Abuztuaren 8an egingo du saiakera. Bitxikeriak ere izan dira tartean: Iñaki Beai alegiarak Txindoki mendia igo zuen 300 aldiz, 300 egunez jarraian, langabazian geratu ostean (behean, eskuinean). **HITZA**

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Ikusmina sortu du VII. Langostino Moto Festak herri osoan zehar

Ibarra » Espero bezala, 300 motorzale inguru elkartu ziren; plazan proben artean jendeak gozatu zuen.

NEREA URBIZU

300 motorzale espero zituzten atzo Ibarrian, VII. Langostino Moto Festan eta bete dira espero zituztenak. Atzo Ibarra beltza eta naranjaz beteta zegoen: motorzale gehienek gustukoaren duten kolorea zeramaten soinean eta antolatzaleek, berriz, laranja koloreko elastikoa.

Batzuk lehen aldiz parte hartu zuten probetan, eta beste batzuk zakur zaharrak: askotan sariak irabazitakoak, Jarrels-en kasuan bezala. Honek, beste behin motorraren gainean zein motelago ibili saria irabazi zuen kanporaketa baten ondoren.

Bigarren proba garagardo kupe-la motorraren aurreko gurpilekin bultzatzea zen eta honetan abilena Joxerra izan zen. Hirugarren proban ere Joxerra protagonista: saltxitxa zati handiena Mariak hartu zuen ahoarekin, Joxerra txofer zuela.

Emilio Zamoraren saioa

Ibarriko Euskal Herria kalean motorraren hainbat trebetasun egiteko gai den Emilio Zamora gonbidatu zuten. Zer ikusia izan zen orduan ere. Aurretik egindako hiru probetan eragindako barreak baino, harridura ere sortu zuen ikusleengan Zamorak.

Bakoitzak bere kasa bazkaldutuen atzo. Elkarrekin egingo zutena afaria izan zen. Ondoren ere kontzertuak izan zituzten.



Atzean Jarrels, motelen hobekien ibiltzen dakiena. Tartean estreinakoz aritu direnak ere baziren... N. URBIZU

» GAURKO EGITARAUA

- **09:00-10:00.** Gosaria.
- **10:30.** Moto bira Arbizu aldera: hamaiketako egingo dute bidean.
- **13:00.** Ibarra itzuliko dira motorzaleak.
- **14:00.** Bazkaria eta jaiaren bukaera.

Gaur Arbizu aldera doaz

Gaur bukatuko da VII. Langostino Moto Festa Ibarrian. Baina bukaroborobila emannahian, motorzaleek ia gogokoen dutena egingo dute: ibilaldia. Kasu honetan antolatzaleek Arbizura irteera egitea pentsatu dute. 10:30a aldera abiatuko dira plazatik.

Aurretik gosaldutako egingo dute indarrak hartzeko, nahiz eta bidean zehar hamaiketako egin, «sendo hasi beharra da motorraren gainean». Buelta egiteko bazkaltzeko geratuko dira nahi dutenek: 14:00etan elkartuko dira.



Harley itxurako bizikletak ere baziren: xebebrekeriak tarteka... N. URBIZU

Laburrak

Ustez droga saltzeagatik 10 lagun atxilotu dituzte

TOLOSALDEA • 10 lagun atxilotu dituzte eskualdean ustez droga saltzeagatik. 56 kilo hachis, armak eta droga manipulatzeko gailuak atzeman zituen atzo Guardia Zibila. Adierazi dutenaren arabera, atxilotuak hachisa kontsumorako kantitateetan saltzeaz arduratzen zen talde batekoak dira. Sei hilabeteko ikerketen ondoren, bost miaketa egin dituzte eta 56 kilo hachis atzeman zituzten atzo Guardia Zibila. 9 milimetrodun calibreko pistola bat, bi eskopeta, arma zurriak eta droga manipulatzeko gailuak. Atxilotuak hauek Buceador II izeneko polizia operazioarekin lotu dituzte. Guardia Zibila adierazitakoaren arabera, Marokotik ekartzen zuten droga, eta Algecirasen (Espainia) gorde. Droga batez ere Gipuzkoan saltzen zuten.

Txosna batzordearen bilera izango da etzi

VILLABONA • Etzi asteartea, iluntzean Villabonako udaletxeko balioanitzeko gelan txosna batzordearen bilera izango da. Parte hartu nahi duen oro bertan azaltzeko gonbita egin dute antolatzaleek. Bileran haur 20:00etan hasiko da. Besteak beste, festen antolakuntzaz ariko dira.

Ibai Agirrebarrena gaztea espetxeratu dute

LIZARTZA • Ibai Agirrebarrena espetxean sartu zuten atzo. Parisen epailearen aurretik iragan ondoren sartu zuten. Goiti eta Etxegarai ere sartu zituen, kale erasoetan parte hartu izan dutelakoan. Astelehenean atzeman zituen Frantziako Poliziak. Agirrebarrena eta Etxegarai Fleuryko kartzelan daude; Goiti Fresneskoan.



VI. Transernio Pilota Txapelketa abian

ADUNA • VI. Transernio Pilota Txapelketa hasi zuten atzo. Abuztura arte iraungo du txapelketa honek. Honetan lau mailako pilotariak ariko dira. Atzokoan, esaterako, kadeteen mailan binaka aritu ziren eta Etxenike-Zinkunegik eta Nazabal-Zabalak egindako partidaren une bat ikus daiteke argazkian. Berez, Nazabalen ordez Artola aritu behar zen baina gaixo zegoenez, bikotea aldatu behar izan zuten. N. URBIZU



Betizu jatea 110 lagunek gozatu dute

UGARTE • Betizu jatea antolatutako atzo Ugarterako Elkarteak. Frontoian 14:00etan 110 bazkaldar bildu ziren antolatzaleen esanetan. Hauen artean haurrak aurkitzen ziren, hauentzat bazkaria doan jarri zuten Elkarterako kideek. Ugarten Betizu jatea urteroko ohitura bilakatu da eta atzokoan frontoian bildutako jende kopuruaren arabera, urteetan jarraituko duen ohitura dela dirudi. ASIER IMAZ

Berrikuntzak azokan: gereziak, San Joan sagarrak eta kuletroak

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna berrikuntzaz beterik etorri zen. Fruta arloan aurtengo lehenengo aranak ikusi ahal izan genituen, eta hauekin, udarako San Joan sagarrak eta gereziak izan ziren mahaietan. Barazkien artean Ibarrako Piperra, eta tomatea nagusitu ziren. Hauekin batera, udaberriko babak eta ilarrak ere azokan aurkitzen ziren, eta dirudinez, oraindik aukeran izango ditugu, nahiz eta pixkanaka desagertzen hasiak diren.

Perretxiko zerrenda ere ez zen makala izan. Salgai izandako kopurua ez zen joan den asteakoaren adinako, baina aukerak gora egin zuten, aurtengo lehenengo kuletroak ikusteko aukera egon zelarik. Hauekin, ziza hori asko, ondoak eta gibeldurdinak izan ziren.

Egun hauetako eurriak lagunduko duela dirudi, eta datozen egunetan produktu gehienek gora egitea espero dugu.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.	Landareak
Alegria	1,20 -
Erromeroa	4,00 6,00
Hortentsia	10,00 -
Xarbota	4,00 6,00
Geranioa	2,00 -
Larrosa	10,50 -

BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta	
San Joan sagarra	2,00 -
Arana	2,00 -
Urra	2,00 3,00

Perretxikoak

Ziza horia	20,00 -
Onddoa	20,00 30,00
Kuletroa	24,00 -

Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00 12,00
Tomatea	3,00 5,00
Ibarrako piparra	10,00 -
Bainak	4,00 -
Patata	1,00 1,50

Besteak

Ogi biologikoa (500gr)	2,20 -
Arraultzak	2,50 -
Artisau ogia	2,80 3,70
Irasagarra	3,00 6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00 -
Ardigazta	14,00 24,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00 3,00
Azenarioa	2,00 2,50
Tipula sorta	1,75 2,00
Letxua	1,00 -
Ahuntz gazta (200 gr)	3,00 -
Mermelada	3,00 3,60

Garbiketa Orokorren ondoren hamaika ekitaldi jaien azken egunean

Jaiak » Jaiak bat egin zuten atzo 2009ko Antzerki Asteko azken emanaldiarekin. Gaur amaituko dira Festak.

ASIER IMAZ

Jaien lehen egunaren ostean Garbiketa Orokorren txanda iritsi zen atzokoan. Txukin txarra zaharra taldearen eskutik 08:00etan ekin zioten lanari Amarotzen. Bigarren eguna oso oparoa izan zen, ekitaldi ugari aurkitzen baitziren egitarauan. Horren adibide dira Patxi Rodriguez XII. memoriale txirindulari proba, puzgarri eta haur jolasak, dantza emanaldiak, Ajoarriero lehiaketa...

Azken eguna ere oparoa

Amarozko Jaiak gaur amaituko dira eta azken egunean ez da atseñen hartzeko betarik egongo.

Garbiketa Orokorren ondoren 09:30ean hildakoen aldeko meza egingo dute Iurreko Andre Maria elizan. Ondoren, besteak beste Amarozko artisau eta eskulanen erakusketa, Toka txapelketa eta afari merienda egongo dira.



Ajoarriero Lehiaketa Txoko Txikiko gurasoek irabazi zuten. Guztira 15 taldek hartu zuten parte. ASIER IMAZ

» EGITARUA

Uztailak 5, gaur

- **08:00.** Garbiketa orokorra, Beti-noak taldearekin.
- **09:30.** Iurreko Andre Maria elizan meza Amarozko hildakoen alde.
- **09:30.** Diana, Tolosako txistulariekin.
- **10:30.** Erromeria: San Blaseko ermitan elkartu hamaiketakoia egi-

teko (barrikotea) eta auzoan barrera jaitsi kalejiran.

- **11:30.** Amarozko artisau eta eskulanen erakusketa eta erakustaldia zuzenean festa gunean, Beti Gazteak elkarteak antolatuta (Ehizari-lanak, kakorraz-lanak, bainika, eskulanak,...)
- **12:00.** Toka Txapelketa Ekaitz tabernaren aurrean.

- **13:30.** Fatxada eta balkoi loratuen sari banaketa.
- **14:30.** Auzoko bazkaria Amarozko txarangarekin.
- **18:30.** Amarozko dantza taldea eta dantzari txikien emanaldia. Ondoren, auzoko aurrekua.
- **20:00.** Afari merienda (sardina erreka, sagardoa, eta musika Zelaia anaiarekin.



Pipa eta Mosko titiriteroa Sebastopoldik

ANTZERKIA » Amarozko Antzerki Artisauek ekainaren 30ean Antzerki Astea 2009 jarri zuten martxan auzoan. Bost egunetan hainbat emanaldi antolatuta dituzte, azkena atzokoan. Amarozko jaiak bat eginaz Sebastopoldiko Titiriteroak taldeak *Pailaso titiriteroa* ikuskizuna eskaini zuten

Amaroz Jatetxearen aurrean. Haur eta heldu ugari elkartu ziren Pipa eta Moskoren malabarismoak ikustera. Aurtun, ikusi aldetik ekimenak iaz baino erantzun hobea du. Harrera bero horren zergatia grian antzerkia kalera atera izanak edukiko du. A. IMAZ

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Garbiketa orokorrak egiten ditugu: obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Interesatuek deitu inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbaki hauek: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikaztegiaren etxebizitza alokairuan, altzariekin. Interesatuek deitu ondoko zenbaki hauek: 943 65 40 77, 628 69 88 07 edo 676 01 12 60.

■ **Etxebizitza.** Tolosan atakoa alokatzen da, altzariekin, erdialdean. Igoailurarekin. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 618 130 081.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

MUNDUA AHULENEN BEGIETATIK



Ezkerrean Elena Aranbarri, eserita Baba Lo eta eskuinean, zutik, May Gorostiaga, ikasleak agurtzeko unean. I.T.

Gizartea » Antzerki-Foruma lantzen dute Baketik-en; Jonan Fernandez da zuzendaria, eta May Gorostiaga, Baba Lo eta Elena Aranbarrik hartzen dute parte.

INIGO TERRADILLOS

Betidaniak ezagutu dugu bereizketa hori, indartsuena eta ahulena. Indartsuak euren burua handitzat jotzen dutenak dira, maila bat gorago daudela uste dutenak eta pertsona batzuen aurrean jarrera batzuk normaltzat ikusten dituztenak. Ahulak, berriz, diskriminatzen direnak dira, indartsuek *desberdin* ikusten dituztelako sexuagatik, arrazagatik edota beste hainbat arrazoiengatik. Pentsa une batez behintzat ahularen begietatik ikusiko bagenu, haren lekuan jarri eta hark jasaten dituenak guk sentituko bagenu. Ziur harenganako pentsamendua eta jarrera aldatuko genituzkeela.

Honetan oinarritzen da, besteak beste, Antzerki-Foruma, Baketik bake zentroan lantzen ari diren proiektua. «Gatazkei ekiteko modu etiko baten ikaskuntza hedatzea» du oinarri Arantzazun 2006ko urrian sortu zen zentroak, eta Jonan Fernandez tolosarra da bertako zuzendaria. Berak azaltzen duenez, «Baketik sortzen ari ginenean ezagutu genuen Ipar Irlandan antzerki forumean oinarritzen zuten programa bat; bertan, komunitateen arteko berradiskidetasuna bultzatzeko erabiltzen zuten, eta gurean ere oso baliagarria izan zitekeela pentsatu genuen». Hango ordezkariari, Orla Hassoni, laguntza eskatu zioten

Arantzazun antzerki forumean oinarrituriko proiektua sortzeko.

Hala, 2007an abiarazi zuten ekimena eta ordutik 10.000 ikasle inguru pasa dira bake zentrotik. «Gure asmoa eskolan gerta daitezkeen portaera bortitzei eta arrazizteiei aurre egitea da, horregatik ikas-tetxeetara luzatzen dugu parte hartzeko gonbita», azaltzen du Fernandezek. Arrazismoa eta eskola-indarkeriaren prebentzioa landuz hasi ziren 2007an 8 eta 12 urte bitarteko gazteekin, eta emaitza «oso ona» izan zenez, hurrengo ikasturterako zabaldu egin zuten proiektua, beste bi gai landuz: sentimenduen adierazpena, harreman sexu-afektiboak eta genero-berdintasuna 13 eta 14 urte bitartekoentzat eta immigrazioa eta integrazioa 15 eta 16 urteentzat.

Gazteak sentsibilizatzea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren laguntza duen proiektu hau eskaintzen duten «politzenetako» dela dio Baketik-eko zuzendariak: «gazteei zerbait adierazi nahi diegunean lezio bat ematen diegu askotan, baina metodologia honen bidez gauzak esperientziaren bitartez ikasten dituzte, antzerkian parte hartuz eta irudikatzen duten paperaz jabetuz; horregatik ditu emaitza onak, gazte hauek besteen lekuan jartzen direlako».



Gogoeta tailerretan parte hartzen ikasleak Gorostiagarekin. I.T.

Jonan Fernandezek ustetan «beharrezkoa» da gazteekin horrelako gaiak lantzea; «sentsibilizatu egin behar dira horrelako gaien aurrean». Horregatik, egunbeteko iraupena duen Antzerki-Forumean parte hartu eta gero, ikastetxeek jarraipena eman diezaioke metodologia horri: «dokumentazioa ematen diegu ikastetxei lanean jarraitu dezaten, eta sesio desberdinak ere eskaintzen ditugu ikastetxean bertan».

Arantzazuko esperientzia

Hego Euskal Herriko ikastetxe askotako ikasleek ezagutzen dute dagoeneko Baketik zentroak eskaintzen duen proiektua. Autobus Arantzazura iritsi orduko jartzen dute martxan ekimena, apartekalekuan izaten baitituzte zain

aktoreak, hau da, May Gorostiaga eta Elena Aranbarri tolosarrak. Aktoreek hainbat egoera irudikatzen dituzte: immigrazioaren gaiari lotuta, esaterako, jatorri brasileko iraupena duen Antzerki-Forumean parte hartu eta gero, ikastetxeek jarraipena eman diezaioke metodologia horri: «dokumentazioa ematen diegu ikastetxei lanean jarraitu dezaten, eta sesio desberdinak ere eskaintzen ditugu ikastetxean bertan».

2007an proiektua abiarazi zutenetik Hego Euskal Herriko 10.000 ikasle inguru izan dira

darreko ikaskide berriaren papelean jartzen dira, edota lanean postuz igotzeko zailtasunak dituen neska ijitoaren lekuan. Amaiera zorigaitzekoa dute istorioek, eta orduan, ikasleei antzez-lana, eszenak eta eszenatokia bera aldatzeko gonbita egiten zaie, istorioa hobeto amaitzeko. Aldaketak egin, eta aktoreek antzeztzen dute

berriro ikasleen parte-hartzearekin. Antzezlanaren ostean, esperientzien emaitzekin gogoeta tailerrek egiten dituzte, eta horien bidez ere, hainbat egoera desberdinetan euren burua irudikatzen aukera dute. «Honen bidez, ikusle pasiboak egile eta aktore bihurtu nahi dugu, lehenik antzezlanean, eta gero, bakoitzaren errealitatean».

Ikastaroekin aurrera

Esperientzia «oso baikorra» izan dela aipatu dute ikasleek, eta ondorioz, datorren ikasturtean ere jarraipena izango du proiektuak. «Horretaz gain, eskaintza zabala dugu Arantzazun: helduentzako kurtsuak ditugu, esaterako zailtasunak dituztenentzat eta baita bi-deotekazabala ere».

«Sentsibilizazioa lantzeaz gain, norbere burua hobeto ezagutzeko oso baliagarria da ekimena»

MAY GOROSTIAGA, BABA LO ETA ELENA ARANBARRI > Antzerki-Forumeko lan-taldeko kideak

Hezkuntza » Hiru tolosarrek hartzen dute parte Antzerki-Forumean; esperientzia «oso polita» dela azaldu dute.

I. TERRADILLOS

Antzerki Forumaren proiektuan May Gorostiaga eta Elena Aranbarri aktore tolosarrak ari dira parte hartzen. Aurtengo ikasturtean, gainera, Tolosan bizi den Baba Lo senegaldarraren lankidetzaz ere izan dute immigrazioaren gaia jorratzeko. Euren lana zertan den azaldu dute, eta proiektuak eurentzat duen «garrantziaz» mintzatu dira.

Lehendabiziko aldia al da horrelako esperientzia izan duzue?

May Gorostiaga. Antzerki forumak Brasilen du jatorria, eta Augusto Boal da sortzailea. Iaz egin genuen bere antzezlan bat Leidor aretoan, beraz, ezagutzen nuen. Berak antzerkia erabiltzen zuen, nolabait gauzak aldatzeko, gizar-tea aldatzeko eta hobetzeko.

Baba Lo. Niretzat estreinako aldia izan da. Ez nintzen inoiz gaztetxoe-ekin horrela jardun, eta oso ondo joan dela esan dezaket.

Elena Aranbarri. Banuen horrelako antzerkiaren ezagutza, eta esperientzia antzekoetan ere parte hartu izan dut. Baloreekin lana egitea oso garrantzitsua da. Pertsonen lekuan jartzea dinamika desberdina da, eta oso aberasgarria dela konturatu gara.

Nola izaten da egun bat Arantzazu ikasleentzat?

M. G. Gurekin Antzerki-Forumean goizean egoten dira. Hiru zatitan banatzen dugu goiza: hasteko antzerkia egiten dugu; gero antzerki-foruma dator, eta hemen, euren iritzia eta balantzea egiten dute, eta beraiek izaten dira gidoi-lariak eta aktoreak; azkenik gogoe-ta tailerrak daude. Gero, bazkaldu egiten dute, eta ondoren, bisita gidatua izaten dute Arantzazutik Pello Zabalaekin santutegia ezagutzeko.

Bulling-arekin hasi zineten. Nola-ko esperientzia izan zen?
M. G. Oso ona. Laugarren eta bosgarren mailako ikasleek hartu zuten parte. Askotan beraiek eraso-tzaile dira, baina ez dira konturatu-zen. Orduan, metodologia honen bidez ikusten dute egiten dutena. Irakalesleek esan izan digute gehiago ezagutzen dituztela ikasle-ek programaren bidez.

Gero beste bi gai ere landu dituzue: berdintasuna eta immigrazioa.
M. G. Talde txikiagoak izan dira eta gehiago sakontzeko aukera izan dugu, horregatik politagoa



May Gorostiaga, Baba Lo eta Elena Aranbarri, Arantzazun, Baketik bake zentroan. I. T.

izan dela esan daiteke. Gai hauek landuta sentsibilizazioa lantzeaz gain, norberak bere burua hobeto ezagutzeko ere oso baliagarria da. Immigrazioaren gaia, bereziki oso polita izan da, eta Babaren parte-hartzeak asko aberastu du guztia. Bere bizitzaren esperientzia kontatu die eta gazteek biziki jarraitu dute istoria. Errealagoa izan da horrela, eta gazteak gehiago sartu dira modukoak gara.

E. A. Gai guztiak oso interesgarriak izan dira, eta guztiak dira garrantzitsuak. Egia da, azkenekoan, hau da, immigrazioaren gaian, agian gertuago ikusi dutela, benetakoa esperientziaren berri izan baitute, eta hori nabaritu dugu, galdera asko egiten baitzizkioten Babari, beraz, interes handia azaldu dute.

B. L. Nabaritu dugu, ikasleek balantzea egiterakoan nire zatia hautatzen zutela gustukoekin bezala, agian tristeena-edo egiten zitzaie-lako. Nire zatian Senegalen nola bizi garen, eta hemen Euskal Herrian nolako bizi mota dudana azaldu diet, eta behin nire azalpena amaituta, galdera asko egiten zizki-duten. Askok poztzen naiz horrelako interes agertzen dutelako.

Ikasturte honetan izan dituzuen

saio guztietan denetarik ikusi-ko zenuen.

M. G. Bai. Gogoan dut behin irak-lesle batek jito guztiak txarrak zi-rela esan zuela. Gogorra izan da batzuetan, bai. Ikusi dugu, gazte-entzat ezezik helduentzat ere oso baliagarria dela.

E. A. Beste batean, zera esan zuen andereño batek, emakumeak gu-

«Oso baliagarria da ekimena, baina hau pauso bat baino ez da jarraipena egin behar da»

«Oso gustura aritu gara, emaitza polita izan da, eta datorren urteari begira gogotsu gaude»

txiagore zirela, beraz, pentsa. Dene-tarik ikusten duzu.

Antzerki-Forumak duen helburua betetzen al du?

M. G. Bai. Jaso ditugun balorazio-egon-egatik eta erreazioengatik, baietz esango nuke.

Garrantzitsua iruditzen zaizue, beraz, ekimena.

M. G. Oso garrantzitsua. Hori bai, hau pauso txiki bat baino ez da, eta jarraipenik ez badu ez du balioko ezertarako. Horregatik, jarraipena emateko aukera eskaintzen dugu.

E. A. Oso garrantzitsua. Gaztetxo-ekin nahiz helduekin lan egiten dugu, eta esan dezaket, nire ustez, errazagoa dela gazteekin lan egitea horrelako gauzeekin. Adimen emo-zionalarekin erlazioan nuke, ez baita materiaren gainean soilik lan egitea, baloreak sartzen ditugu tartean, eta azken aldian baloreen gaia pixka bat ahaztua zegoen. Beraz, erabat gomendatuko nuke horrelako lanak egiten jarraitzea, ezinbestekoa iruditzen baitzait.

B. L. Bai. Niretzat oso inportantea da gazte hauek ulertzea nik zer egi-ten dudana hemen, hau da, zergatik etorri nintzen hona nire lurraldea eta familia utzita. Ziur gauza guz-tiak jakinda bestelakoa izango li-zatekeela jendearenganako jarre-ra. Beraz, hemen hori lantzen du-gunez, egin beharreko zerbait dela iruditzen zait.

Ikasleen erantzunak espero zeni-tuztenak bezalakoak izan al dira?

M. G. Interesgarria izan da alde horretatik askotariko erantzunak jaso ditugulako. Oso positiboa izan da ikusi duguna. Esaterako, bazi-ren ikasleak joan ere ez zutenak nahi, baina behin parte hartu oste-an, benetan merezi izan duela ai-patu dute. Horrek asko poztzen gai-tu. Batzuek oso gertutik ikusi dute, eta hunkitu ere egin dira. Polita da erreazio horiek ikustea.

Datorren ikasturtean jarraitzeko gogotsu al zaudete?

M. G. Bai. Oso gustura egin dugu aurtun, eta errepikatzeko gogo-z gaude. Gainera, dagoeneko ikaste-txe ugari eman dute izena, beraz, proiektuak interes apiztu duen sei-nale. Lekua bera ere oso aproposa da horrelako gauzak egiteko, be-raz, erabat gomendagarria da eki-mena.

E. A. Oso ondo joan da orain arte egin duguna, beraz, gogotsu ekin-gu diogu hurrengo ikasturteari ere.

B. L. Esperientzia polita eta erabat berria izan da niretzat, beraz, gogo handiz joango naiz hurrengo urte-an ere nire esperientzia kontatze-ra.

AMEZKETA. ETXEBIZITZA TASATUAK,
2 logela eta 2 bainugela, terraza, garajea eta trastelekuarekin, dena 31.000.000 pztza BEZ barne baino gutxiagorik. Lista irekiak Amezketa erroldatuta ez daudenentzat. 943 30 40 38. www.inmoernio.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Festak eta azokak

■ **Ibarra.** VII. Langostino Moto
Festa: 09:00etan gosaria, 10:30ean moto itzulia, hamaiketakoa, 13:00etan itzulera, 14:00etan bazkaria eta festa amaiera.
■ **Irura.** Garagardo Azoka, 18:00etatik 01:00etara.

Deialdiak

■ **Asteasu.** Santamañako Igoera korrika uztailearen 12an, 10:30ean (7 km). Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.
■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jabetxeetan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Luis M.) telefonoetan.
■ **Tolosa.** Soldadura, mekanizatu eta ostalaritza ikastaroak antolatuta ditu Peñasal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordukoak. Izen-ematea, fundazioan edota 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zenbakietara hots eginez.
■ **Tolosa.** TAKek arraun ikastaroak antolatuta ditu hiru hamabostalditan: bi uztailean eta bat abuztuaren. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

Ip (2.779 m) - Canfranc. Izen-ematea, elkartearen (649 717182).

Aisia

■ **Tolosa.** Tailerrak Topagunean: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an graffiti, hilaren 15ean filma ikusgai eta 17an merendola eta karaokea.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 19:30ean, *The international*; 17:00etan, *Los mundos de Coraline*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *The international*.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Bihar
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Kirol eskolan eskulanak protagonista

ZIZURKIL ● Zizurkil Goiko gurasoek kirol eskolaren ikasturte amaierako festa antolatuta zuten atzorako eta parte hartu zutenek ez dute erraz ahaztuko, besteen artean etxera oroigarritxo bat eramateko aukera izan baitzuten (buztinez egindako figurak). Horretarako, altxorren bila aritu ziren 28 haur eta gaztetxo. Ondoren, eskulanak ere egin zituzten. Lehenik zuhaitz batzuk paperean eginda, hostoen parte nahi zutenarekin edertu zuten, hura margotu ondoren. Denek elkarrekin bazkaldu zuten Zimenterioan. Segidan, 17:00ak aldera, haur eta gazte guztiak Zimenterioaren ingurura hurbildu ziren berri, bertan buztinarekin egingo baitzituzten hainbat figura. Imarkoaindik bertaratu zen buztinilea tornu eta guztiz joan zen eta 28 gaztetxoeuren eskuekin egin zituzten: potetxoak, ontziak, itxulapikoak... Beste tresna batzuekin nahi adina apaindura egin ahal izan zizkieten figura berriei. Dena den, ordu batzuetan itxaron beharko dituzte erabilerara eman ahal izateko. Festarako aukera izan zuten denek, gurasoek barne. NEREA URBIJU

Irteerak

■ **Tolosa.** Udazgeteako irteerak: hilaren 9an Donostiako Santa Klara irlara, hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura, hilaren 18an egun pasa Nutrikun eta Spraykada graffiti festan parte hartu eta hilaren 22an Lekunberriko kirol abentura parkea. Izen-ematea, Topagunean (Kultur Etxea).
■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatuta du Harizpe jubilatutako elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (pentsio osoa 257 eta 262 euro).
■ **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñako San Fermin jaietara irteera antolatuta du Harizpe jubilatutako elkarteak, Blanca de Navarra hotelean bazkalduz. Izen-ematea, elkartearen (33 eta 30 euro) Antolatzailea: Harizpe jubilatutako elkarteak.
■ **Tolosa.** Hilaren 11n eta 12an ekin-tza ugari antolatuta ditu Oargik: arroiaren jeitsiera, eta eskalada, besteak beste. Izen-ematea: 688 69 86 42 edota info@oargi.org.
■ **Villabona.** Hilaren 11n eta 12an Pirinioetara irteera antolatuta du Aizkardik: Canfranc-Lecherines (2.567 m) - Borau (2.561 m) - Rio-seta-La Moleta (2.572 m) - Pala de

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak
agurrak
agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

